



SINOPSISIA



1938ean Saturrarango emakumeen kartzela Espainiako Gerra Zibilean jazotako ankerkeriarik basatienaren lekuko izan zen.

Victoria, errepublikar baten alarguna, ahizpa eta semearekin batera sartuko dute kartzelara. Gertutik ezagutuko du Gerra Zibilaren atalik ilunena. Victoria eta gainerako emakume presoak erregimen frankistak ezarritako zentzugabekeriaren lekuko zuzenak izango dira.

Saturrarango emakumeen kartzela mesedetako mosen ardurapean dago. "Pantera Zuria" da espetxeko zuzendaria eta Vallejo doktorearen teoriak jarraituz, preso dauden emakumeei haurrak kenduko dizkie erregimenaren aldeko familien esku uzteko, "Espainiaren onerako" dela argudiatuz, eta emakume presoen bizitza amesgaizto bihurtuz.

Gosez hildakoak, bortxaketak, irainak eta tratu txarrak" Saturrarango ejerzito frankistako soldaduen burdel partikularra izango da. Horixe aurkituko du Victoriak kartzelan.

Semearen galerak eta etsipenak bultzatuta, Victoriak aurre egingo dio "Pantera Zuriari" gainerako presoekin batera. Zigorrak eta irainak jasango ditu, ihes egiten saiatuko da, baina azkenean egoera horretan bizitzen ikasiko du, semea berreskuratuko duen itxaropenaz.

Izan ere, guztia galdu dugunean, itxaropenak soilik salba gaitzake.



PROIEKTUAREN MEMORIA



Saturrarango kartzela antzina bainuetxea izan zen, baina gutxiak dakite gerraosteko gertakaririk gogorrenetakoak bizi izan zirela bertan 1938 eta 1944 urteen artean.

Bost mila emakume inguru espetxeratu zizuten inolako arrazoirik gabe, eta askatasuna kendu zieten. Seme-alabak lapurtu eta umeak familia falangistei adopzioan eman zizkieten.

Hori guztia Vallejo doktorearen "gutxiagotasun mentalaren teoria" ankerrean oinarrituta.

Emakume hauek guztiak, euren pentsakerari eusteagatik eta, azken finean, konpromisoa, koherentzia eta duintasuna gordetzeagatik izan ziren kartzelaratuak.



Ezarritako sistemak nahi ez zituen alabak ziren. Inposaketan oinarritutako sistema autoritario eta zorrotz hark ez zuen ulertu emakumearen gaitasuna eta eginkizuna

Gure oroimen historikoa berreskuratzeko saiakeran, emakumearen ikuspegitik eta generoa kontuan hartuz bideratu da luzemetraia.

Arrazoi nagusia bi eremuak uztartzea litzateke, emakumea eta oroimen historikoa, hemen Euskadin egiteke genuen betebeharra, alegia..



2006ko ekainaren 22an Diputatuen Kongresuak 2006. urtea "Memoria Historikoaren Urtea" izendatzea onartu zuen. Alderdi Popularrak bakarrik azaldu zen aurka. 70 urte bete ziren bidegabekeria urte luzeak ekarri zituen gerra bukatu zenetik.

Geroago, 2007ko urriaren 31ean, Memoria Historikoaren Legea onartu zen. Lege horren bidez, Gerra Zibilean eta Diktaduraren jazarpena edota indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortu eta gehitu ziren, baita euren aldeko neurriak ezarri ere.

Badirudi halako urteurren bat, 70. urtemuga hain zuzen, honelako lege batekin ospatu beharra zegoela, baina egia esan, berdin zen... berdin zen 70, 50 edo 2 urte igaro izan. Lege hau behar-beharrezkoa zen. Batzuen ustez, berandu heldu da, eta beste batzuek diote gutxienez heldu, heldu dela; gure ustez, orain atea irekita dagoela, beste urrats bat emateko ordua da.

Beste urrats bat ahaztuen alde, beste urrats bat bidegabekeria eta zentzugabekeria oroitzeko. Azken batean, beste urrats bat garai hark zer eragin zuen eta protagonistek zer-nola bizi izan zuten behin betiko garbi uzteko.

"Izarren argia" proiektuak urrats hori eman nahi du, filma ez baita garai bateko kontakizun hutsa, ezta belaunaldi batekoa ere. "Izarren argia" sentimendu bat da, itxaropenerako arrazoi bat, jende askok galdu baitzuen itxaropena aurrera egiteko guztiz beharrezkoa zenean. Filmak, modu narratiboan, garai ilun baten berrikuspenera proposatzen du. Izan ere, jende asko isilik geratu behar izan zen bizirik jarraitu ahal izateko, askok amets egin behar izan zuten itxaropena ez galtzeko.

Protagonisten oroitzapenen bidez historiaren pasarte bat gogoratuko dugu, batzuek ezabatu nahi izan dutena baina film honi esker berreskuratu ahal izango duguna eta inoiz galduko ez duguna.



Espetxeaz arduratzen ziren mesedetako mojak ez ziren izan inondik ere karitatearen eredu; sistema-
ren konplize izan ziren, beste katebegi bat erregime-
naren errepresio-katean. Hainbat pertsona ausartu
dira zenbait urte geroago kartzelako hormen artean
bizi izan zituzten izugarrikeriak salatzerantz: tratu txar
fisikoak eta psikikoak, gosea, umeen eta emaku-
meen heriotzak” Eta, batez ere, tratu iraingarria,
giltzapean zituzten nesken eguneroko apalkuntza.
Zentruan 177 pertsona hil zirela jakin da, haietatik
59 inguru haurrak.

“Izarren argia” filman espetxeratutako emakume baten istorioa azaltzen da, Victoriarena, baina edozeinena izan zitekeen. Victoriaren oroitzapenen eta borrokaren bidez jakin-
go dugu zelan bizi izan ziren kartzela hartan eta zelakoa zen hango eguneroko jarduna.
Izan ere, emakume haiek gerraren alderik latzena jasan behar izan zuten: baldintza pe-
nagarrietan biziraunez itxarotea beste aukerarik ez baitzuten.

Horregatik, “Izarren argia” emakume haiei guztiei eskainitako omenaldia da. Estatu
osoko emakumeak izan ziren. Espetxeratu eta aukeratu ez zuten leku batean bizitzera
derrigortu zituzten, maite zituztenengandik urrun. Aukerarik gabeko emakumeak, ahot-
sik gabekoak, baina, aldi berean, itxaropenez beteak.



Eta honegatik guztiagatik behar dugu film hau, emakume haiei justizia egiteko, lotsa-
gabekeriak historiaren pasarteok estali ez ditzan, baina batez ere, sasoirik gogor eta
ilunenetan ere itxaropenerako tarteak bada-
goela erakusteko.



DATU TEKNIKOAK

- ZUZENDARIA ETA GIDOILARIA : **Mikel Rueda Sasieta**
- PRODUKTOREA: **Eduardo Barinaga**
- PRODUKZIO ZUZENDARIA : **Asier Bilbao**
- PRODUKZIO BURUA : **Mikel Huércanos**
- ZUZENDARI LAGUNTZAILEA: **Julen Robles**
- ARGAZKI ZUZENDARIA : **Gonzalo Berridi**
- ARTE ZUZENDARIA : **Peio Villalba**
- ZUZENEKO SOINUA : **Pablo Bueno**
- MUSIKA: **José Ramón Gutiérrez**
- ESTILISTA : **Josune Lasa**
- MAKILLAJEA : **Eva Alfonso**

FITXA TEKNIKOIA

- Formatua : **Fikzioa**
- MASTERRA: **35 mm, kolorea**
- IRAUPENA: **90 min**
- SOINUA: **Dolby Digital**
- PROIEKZIOA: **1:2,35**
- LABORATEGIA : **Foto Film Deluxe, Madrid**
- PRODUKTOREA : **Baleuko SL**
- PRODUKZIO URTEA: **2009-2010**
- HIZKUNTZA: **Euskara**
 - Jatorrizko bertsioa gaztelerazko azpituluekin.
 - Gaztelerara bikoiztutako bertsioa (azpitulurik gabe).
 - Jatorrizko bertsioa ingelesezko azpituluekin.



ZUZENDARIA



"Izarren argia" da 1980. urtean jaiotako bilbotar honen lehenengo film luzea. Mikel Nafarroako Unibertsitatean lizentziatua da, gidogintza espezialitatean. Ikasketak bukatuta, ikusentzunezko sektorean hainbat lan burutu izan ditu errealizadore, produktore zein gidolari gisa. Lan esperientzia labur baina emankor baten ondoren, New Yorkera egin zuen bidaia bertako New York Film Academy ospetsuan zine zuzendaritza ikasketak osatu asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako beka bati esker.

Filmografia (gidoilari eta zuzendari lanak):

- **9 milímetros** (2002). Laburmetraia.
- **El carrito** (2003). Laburmetraia.
- **Érase una vez** (2004). Laburmetraia.
- **Stepping in love** (2006). Laburmetraia.
- **Happy together** (2006). Laburmetraia.
- **It's been a long time.** (2006). Laburmetraia.
- **In the Laundry** (2006). Laburmetraia.
- **Just one Kiss** (2007). Laburmetraia.
- **Lost Time** (2007). Laburmetraia.
- **Present Perfect** (2007). Laburmetraia.
- **Cuando Corres** (2009). Laburmetraia.
- **Estrellas que alcanzar** (2010). Luzemetraia.

Filmografía como guionista:

- **Sin pecado Concebido** (2003). Tv-movie.
- **Salve oh Patria** (2007). Luzemetraia.
- **Lo peor** (2009). Laburmetraia.
- **Siempre hay una primera vez** (2008). Laburmetraia.
- **Ruega por nosotros** (2008). Laburmetraia.



PERTSONAIAK



Victoria

Barbara Goenaga.

- Secretos de cocina
- La buena nueva
- Los cronocrimenes
- Un poco de chocolate

Raulen ama eta Sagrarioren ahizpa.

Errepublikara garaian irakasle aritutakoa eta errepublikar baten alarguna. Izaera sendokoa da Victoria, bizitzan aurrera egiten ikasi duen borrokalari nekazina.

Kartzelan ere ez du etsiko eta itxaropenari, ametsei eusten saiatuko da, zauden lekuan zaudela beti baitago ametsen bat jarraitzeko, izarren bat eskuratzeko, ziegako iluntasuna dena behin eta berriz itzaltzen ahalegintzen den arren.

Irakasle eta errepublikar baten alarguna izate hutsagatik borroaren jomuga izango da kartzelara iritsi eta berehala. Baina Victoria ez da bere iritzi politikoak haiztzen dituen horietakoa. Semearekiko maitasunak eta bere kontzientziak injustiziaren kontra jaikitzen zera daramate. Saturrarango kartzelan ez zaio arrazoirik faltako.



Pantera zuria

Itziar Lazkano

- El coche de pedales
- Pecata minuta
- Vaya semanita (TV)
- Aupa Etxebeste!

Saturrarango kartzelako ama nagusia da. Presoak bere agindupean daude.

Vallejo doktoreak konfidantza osoa jarri du berarengan eta Pantera, batzuetan oso ziur egon ez arren, haren aginduak betetzen ahaleginduko da, zalantza zantzu guztiak ezkutatuz.

Zalantza eginagatik estrategia handia da Pantera, dena du kontrolpean. Kalkulatzailerak eta krudela da.



Sagrario

Estibaliz Gabilondo.

- CQC (TV)
- Casual Day
- Malas compañías (TV)
- Locos por el sexo

Victoriaren ahizpa gazteena da.

Sagrario pertsona ahula da. Seguru sentitzeko Victoriaren beharra du etengabe. Ez da gai bakarrik aurrera egiteko.



Emelina

- La buena nueva
- Cosmos
- La buena voz
- Un poco de chocolate
- Vacas
- Balbemendi (TV)

Emelina kartzelako beteranoetako bat da. Kartzela sortu eta berehala eraman zuten bertara ejerzito gorriaren laguntzaile izatea leporatuta. Emelina komunismoaren aldekoa da erabat eta bere ideiak defendatzeko edozer egiteko gai da.



Sor angeles

Teresa Calo

- Cita con Alberto (Cortometraje)
- Goenkale (TV)
- Una bala para el Rey
- Balbemendi (TV)

Saturrararen Sor Angeles agintean bigarrena dela esan daiteke. Bere erara dabil. Panterari obeditzen dio baina arau propioak ezarri ditu eta ahal duen guztietan zigorrak berak jartzen ditu bere ideien arabera. Panteraren antzera, Teresak ez du eskrupulurik eta presoak irainduz eta sufriaraziz gozatu egiten du.



Jesusa

Amaia Lizarralde

- Zorion perfektua
- La ardilla roja
- Catarsis
- Hospital Central (TV)
- El comisario (TV)

Jesusa ere herritik datorren emakumea da. Ez da sekula herritik irten eta bere gurasoekin eta senarrarekin lan egin du bizitza osoan, gerrak denak errotik kendu zizkion arte. Ordutik aurrera Jesusa pertsona beldurti eta otzan bilakatuko da, gehiegi ez nabarmentzen saiatzen den horietakoa. Bere semearentzat onena egiten ahaleginduko da, hartuko dituen erabakiek sekulako mina ekarriko badiote ere.



Marisa

Garbiñe Insausti

- Esporas; hitz debekatuak
- Pandora (Cortometraje)
- El Comisario(TV)
- Al salir de clase (TV)

Marisa kartzelan erabat galdua, babesgabe, sentitzen den emakumea da. Kartzelara sartu eta berehala Sor Angelesek begiz joko du. Marisak ez du kemenik botereari aurre egiteko eta honek suntsitu egingo du.



Julia

Sara Cozar

- Mi querido Klikowsky (TV)
- Goenkale (TV)
- Kutxidazu bidea Ixabel
- Las mujeres de verdad tienen curvas (Teatro)

Julia, beste hainbat emakume bezala, Victoriarekin batera sartuko dute Saturrarango kartzelara. Irmoki sinesten du bere ideietan, baina gerrak gehiegitan jipoitu du.

Emelinarekin batera bera izango da gainerako emakumeak haien eskubideak defendatzera bultzatuko dituen. Halere, bere ardura nagusia seme jaioberriaren ongizatea izango da eta honi tinko eutsiko dio azkenera arte.



Barbara Goenaga ~ Itziar Lazkano
Izarren argia
~ Estrellas que alcanzar ~
baleuko

izarrenargia.com
f YouTube
BARTONFILMS
eitb



Sor pilar

Amagoia Lauzirika

- Martin (TV)
- Mi querido Klikowsky (TV)
- Jardines deshabitados (Cortometraje)
- Goenkale (TV)

Kartzelara etorri berria da. Erabat sinestuna da eta ezin du ulertu Jaungoikoaren zerbitzariak nolatan ez duten bihotz onez jokatzeko hurkoa laguntzerakoan. Gaztea eta esperientzia gabekoa izan arren, gainerako neskei laguntzen ahaleginguduko da.



Sor Angustias

Itziar Ituño

- El final de la noche
- Agujeros en el cielo
- Goenkale (TV)
- Ander eta Konpainia (TV)
- Arkadia

Sor Angustias, Sor Mariarekin batera, Saturrarango moja gazteenetakoa da. Bera ez da konformatzen Jaungoikoaren aginduak betetzearekin eta, horregatik, beti egongo da Sor Angelen ondoan.



Vallejo Doktorea

Patxi Santamaria

- Vacas
- Skizo
- Escalofrio
- Balbemendi (TV)
- Goenkale (TV)

Francoren ideologoa da. Bere iritziz, Francoren erregimenak marxismoarekin behin betiko bukatzeko duen bide bakarra erregimenaren aurkako diren seme-alabak gurasoengandik banantzea eta familia falangistei adopzioan ematea da.

Bere teorietan itsu-itsuan sinesten du eta ez ezerk, ez inork ez du geldiaraziko.



Pedro

Aitor Beltrán

- La casa de mi padre
- La primera vez
- School killer
- Unidad Central Operativa (TV)
- El comisario (TV)

Herriko arrantzale bat da, kartzelara janaria eramatearen arduraduna. Kartzelan Victoria ezagutuko du eta honenganako maitasuna apurka-apurka areagotzen joango da. Pixka bat lotsatia eta bihotz onekoa, Pedro ez da inoiz politika kontuetan nahasia egon.



Raul

Alex Bermúdez

Victoriaren semea da. Ilegoria eta pekatsua. Gauza gutxi esan daiteke amaren besoetatik kendu eta adopzioan emango duten ume honi buruz.



Ana

Esther Uria

- Estados alterados Maitena (TV)
- El Doctor Mateo (TV)
- La noche del Escorpión
- Algunas chicas doblan las piernas cuando hablan

Ana kartzelan preso dagoen beste ama bat da. Gerra garaian militantea izandakoa, herren dabil atxilotu zutenean jasotako jipoi basatiaren ostean.



Sor Maria

Iratxe Hernandez

- Otsoa (Cortometraje)
- La melodía de las palabras (Cortometraje)
- Platanov (Teatro)
- Sueños de la casa de Bernarda Alba (Teatro)

Sor Maria kartzelako moja gazteenetakoa da. Ordenarekiko fideltasuna erabatekoa duen arren, ez ditu Panteraren zenbait erabaki ulertuko eta kontra egitera ausartuko da.



Sor Teresa

Maite Bastos

- Goenkale (TV)
- La Tostadora (Cortometraje)
- Kabia (Cortometraje)
- Bakarne (Cortometraje)

Sor Teresa Panteraren laguntzaile leiala da. Ordenean urte asko daramatza, berak ere ez daki zenbat. Garbi dauka kartzelari Panterak baino ez duela agintzen.



Apaiza

Zorion Egileor

- La sombra de nadie
- La voz de su amo
- El florido pensil (Teatro)
- El día de su vida (Cortometraje)

Herriko apaiza da. Preso dauden nesken egoeraz ezer gutxi daki. Ez da pertsona gaiztoa baina bere lana egitera mugatzen da eta, badaezpada, ez da haratago joatera ausartzen. Ez du galderarik egingo, jakiterik nahi ez lukeen zerbait aurkituko duen beldurrez.



1939
Dena kendu
zieten itxaropena
izan ezik

Barbara Goenaga ~ Itziar Lazkano

Izarren argia

~ Estrellas
que alcanzar ~

baleuko

izarrenargia.com



Sargento falangista

Mikel Tello

- Obaba
- Ladrones
- La buena nueva
- Un tiro en la cabezas
- Martin (TV)

Kartzela zaintzen duen sarjentua gainbehera egin duen militarra da. Arrazoi ezberdinak direla medio, inolako arriskurik ez duen emakumezkoen kartzela zaintzera gutxietsi dute. Hori dela eta, bortizkeriaz jokatu du beti, preso dauden emakumeak bere egoeraren erruduntzat jotzen baititu.



Amaordea

Maite Arrese

- Kutsidazu bidea Ixabel
- Goenkale (TV)
- Teletxip (TV)
- Ernesto izatearen garrantzia (Cortometraje)

Victoriaren semea, Raul, adopzioan hartuko duen emakumea. Herriko agintari baten emaztea da eta "gorrien" seme-alaben heziketarako familia "egokiak" behar dituztela jakiterakoan bere burua eskainiko du zalantzarik egin gabe. Bere ustez umeen eta herriaren mesederako ari da. Horregatik, bere esku dauden bitarteko guztiak erabiliko ditu Raul bere ama-rengandik ahalik eta urrutien mantentzeko.



Miguel

Eric Provanzas

- La buena nueva
- Zorion perfektua
- Pilotari (TV)
- Sukalde kontuak
- Corrientes circulares

Pedroren lagun zintzoa, bere erabaki guztiak errespetatuko ditu. Gai politikoetan bustitzerik nahi ez badu ere, kartzelako neskekin ongi konpontzen da.



KONTAKTUA

Prensa

- prensa@irekikom.com
- 94 421 26 73
- www.irekikom.com

Ekoiztetxea: Baleuko

- saturran@izarrenargia.com
- saturran@estrellasquealcanzar.com
- 94 466 86 10

Banaketa:

- bartonfilms@bartonfilms.com
- www.bartonfilms.com
- 94 424 05 59